



FILOSOFIAREN HISTORIA
(IRAKASGAI KOMUNA)

HAR EZAZU A AUKERA, B AUKERA EDO C AUKERA, ETA EGIN OSORIK.

A AUKERA: PLATON

Eta ez al da litekeena izanzen halaber, eta esandakoa kontuan hartuz bai beharrezkoa ere, egian hezi eta esperimentatu gabeko gizonak Estatua ezin gobernatu izatea inoiz, ezta beren ordu guztiak ikastera emanak iragateko aukera ematen zaienak ere? Lehenbizikoek, bizitza honetan pribatuki zein publikoki egiten diren gauza guzietan premiazko den jomuga bakarra ikusten ez dutelako. Bigarrenek, berriz, jokatu nahi ez dutelako, izan ere, oraindik bizi direlarik ere, dagoeneko Dohatsuen Irlan daudelakoan baitaude.

- Egia.

- Gainera, ez dugu ahaztu behar guk, Estatu honen eratzailleok, gure lana dela **gaitasunik gehieneko gizonak** lehen gorentzat jo dugun ikasketari ekitera behartzea; hau da, Ongia begiestera eta aipatu igoaldi hura burutzera, eta gero, igo eta behar adina ikusi ondoren, orain uzten zaiena egiten ez uztea.

- Zertaz ari zara?

- Han goian gelditzeaz eta **lehenengo preso haien ondora jaitsi**, haien lan eta sarietan, nahiz hauek hutsalak ala baliotsuak izan, parte hartzeko **prest ez egoteaz ari naiz**. (Platon: *Errepublikak*).

1. Laburpena eta definizioak	(Guztira 3 puntu)
a) Egin testuaren laburpen txikia, ez lau lerro baino gehiagokoa, esaldiak kopiatu gabe.	(0,75 puntu)
b) Zer esan nahi du Platonek “gaitasunik gehieneko gizonak” dioenean?	(0,75 puntu)
c) Zein igoaldiri buruz ari da testua?	(0,75 puntu)
d) Zer esan nahi du “ <i>lehenengo preso haien ondora jaitsi (...)</i> prest ez egoteaz” horrek?	(0,75 puntu)
2. Garatu gai hau: Estatua Platonen arabera (gizarte-klaseak, gobernatzeko erak...)	(3 puntu)
3. Testuingurua eta alderaketa:	(Guztira 3 puntu)
a) Egilearen testuinguru historikoa, kulturala eta filosofikoa.	(Puntu 1)
b) Garatu egile honen beste gai bat, eta alderatu beste filosofo batzuek horri buruz esan dutenarekin. (Funtsezkoa da egile batek edo bik esan dutenarekin alderatzea edo loturak, bilatzea, guzti-guztiak azaldu gabe, eta aurreko galderetan esandakoa errepikatu gabe).	(2 puntu)

OHARRA. Puntu bat gelditzen da honako hauengatik emateko: ortografia, sintaxia, aurkezpena, gai-antolamendua eta landutako material-kantitatearen bestelako ezaugarri formalak.



FILOSOFIAREN HISTORIA
(IRAKASGAI KOMUNA)

HAR EZAZU A AUKERA, B AUKERA EDO C AUKERA, ETA EGIN OSORIK.

B AUKERA: ORTEGA

Idea bat izatea beraren arrazoiak dauzkagula uste izatea da, eta, beraz, arrazoi bat badagoela sinestea, egia ulergarrien mundu bat. Ideiak sortzea, iritzia ematea eta halako auzi-mailara jotzea, haren menpean jartzea, haren kodea onartzea, gauza bera da; sinestea, beraz, **elkarrekin bizitzeko era gorena elkarriketa dela**, gure ideien arrazoiak eztabaidatzeko. Baina **masa-gizona** galdua ikusiko luke bere burua eztabaida onartuko balu, eta bere oldez arbuiatzen du beragandik at dagoen auzi-maila goren horri men egin beharra. Horregatik, "berria" European "eztabaidak bukatzea" da, eta arau objetiboak onartzeak dakarren edozein elkarbizitza-mota errefusatu egiten da, elkarriketatik Parlamenturaino, zientzian barrena igarota. Honek esan nahi du uko egiten zaiola kulturazko elkarbizitzari, elkarrekin araupean bizitzea baita, eta **elkarbizitza barbarora** itzultzen dela. Arauzko eginbide guztiak baztertzen dira eta gogozko dena inposatzera jotzen da zuzen-zuzen. Arima itxitasunak, ikusi dugunez, bizitza publiko guztian parte hartzera bultzatzen du masa, eta, ezinbestez, parte hartzeko modu bakarrera darama ere: ekintza zuzenera. (Ortega: *masen errebolta*).

1. Laburpena eta definizioak a) Egin testuaren laburpen txikia, ez lau lerro baino gehiagokoa, esaldiak kopiatu gabe b) Azaldu esaldi hau: <i>elkarrekin bizitzeko era gorena elkarriketa da</i> c) Zer da <i>masa-gizona</i> ? d) Zer esan nahi du <i>elkarbizitza barbaro</i> horrek?	(Guztira: 3 puntu) (0,75 puntu) (0,75 puntu) (0,75 puntu) (0,75 puntu)
2. Garatu gai hau: Masa-gizona eta eliteak (gizona eta gizartea "zeregina" diren aldetik, historizismoa e.a.)	(Guztira: 3 puntu)
3. Testuingurua eta alderaketa: a) Autorearen testuinguru historiko, kultural eta filosofikoa b) Garatu egile honen beste gai bat, eta alderatu beste filosofo batzuek horri buruz esan dutenarekin. (Funtsezkoa da egile batek edo bik esan dutenarekin alderatzea edo loturak bilatzea, guzti-guztiak azaldu gabe eta aurreko galderetan garaturikoa errepikatu gabe)	(Guztira: 3 puntu) (puntu 1) (2 puntu)

OHARRA: Puntu bat gelditzen da honako hauengatik emateko: ortografia, sintaxia, aurkezpena, gai-antolamendua eta landutako material-kantitatearen bestelako ezaugarri formalak.



FILOSOFIAREN HISTORIA
(IRAKASGAI KOMUNA)

HAR EZAZU A AUKERA, B AUKERA EDO C AUKERA, ETA EGIN OSORIK.

C AUKERA: NIETZSCHE

Asko izango dugu irabazia zientzia estetikoarentzat ulerkuntza logikora iristeaz gainera, artearen garapena apoliniarraren eta dionisiakoaren bikoiztasunari lotuta dagoela esaten digun intuizioaren berehalako segurtasunera heltzen garenean: sorkuntza sexuen bikoiztasunaren mende dagoen bezalaxe, zeinen artean borroka etengabea den eta baketzea soilik aldian behin egiten den. Izen horiek maileguz hartzen dizkiegu grekoei; haiek hautemangarriak egiten dizkiote gizaki adimendunari artearen ikuspegiak dituzten doktrina sekretu sakonak, ez, noski, kontzeptuen bitartez, baizik eta beren jainkoen munduaren irudi guztiz argiekin. Beren bi jainko artistikoekin, **Apolo** eta **Dionisos**, gure ezagutza ondorengo moduan lotzen da, alegia, mundu grekoan antitesi itzel bat dagoela, jatorriari eta helburuei dagokienez, eskultorearen artearen, arte apoliniarraren eta eskultorikoa ez den musikaren, Dionisosenaren artean alegia: horren desberdinak diren bi senak bata bestearen ondoan dabilta, ia beti elkarren arteko desadostasun agerian eta elkar kitzikatuz fruitu berriak eta gero eta indartsuagoak emateko, haietan antitesi haren borroka iraunarazteko, zeinaren gain, itxuraz soilik, “arte” hitzak zubi komun bat luzatzen baitu: “borondate” helenikoaren egintza metafisiko mirarizko bati esker, azkenik, elkarren artean parekatuak agertzen diren arte, eta **parekatze horretan, aldi berean dionisiakoa eta apoliniarra den tragedia atikoaren arte lana sortzen bukatzen dute.** (Nietzsche: *Tragediaren sorrera*)

1. Laburpena eta definizioak a) Egin testuaren laburpen motza, ez lau lerro baino gehiagokoa, esaldiak kopia gabe b) Zeren sinbolo da Dionisos? c) Zeren sinbolo da Apolo? d) Azaldu honako esaldia: “parekatze horretan, aldi berean dionisiakoa eta apoliniarra den tragedia atikoaren arte lana sortzen dute”	(Guztira: 3 puntu) (0,75 puntu) (0,75 puntu) (0,75 puntu) (0,75 puntu)
2. Garatu ondoko gaia: Nietzscheren moral berria (senak, bizitzeko borondatea, jaunen morala eta morroien morala...)	(Guztira: 3 puntu)
3. Testuingurua eta alderatzea: a) Autorearen testuinguru historiko, kultural eta filosofikoa b) Garatu egile honen beste gai bat, eta alderatu beste filosofo batzuek horri buruz esan dutenarekin. (Funtsezkoa da egile batek edo bik esan dutenarekin alderatzea edo loturak bilatzea, guztiguztiak azaldu gabe eta aurreko galderetan garaturikoa errepikatu gabe)	(Guztira: 3 puntu) (puntu 1) (2 puntu)

OHARRA: Puntu bat gelditzen da honako hauengatik emateko: ortografia, sintaxia, aurkezpena, gai-antolamendua eta landutako material-kantitatearen bestelako ezaugarri formalak.